

Foru aldundiak handitu egingo ditu familia giroan zaintzeko eta laguntza pertsonala kontratatzeko mendekotasun prestazioen zenbatekoak

Uztailaren 1etik aurrera, oraingo LGSarekin parekatuko da III. graduako mendekotasuna duten pertsonentzako LPPEaren gehieneko zenbatekoa

FBZPEaren zenbatekoak % 7,5 igoko dira, eta irailaren 1etik aurrera izango dute eragina

Vitoria-Gasteiz, 2026ko ekainaren 2a. Foru Gobernu Kontseiluak gaur goizean onetsi du handitzea familia giroan zaintzeko eta mendekotasuna duten pertsonen zaintzaile ez-profesionalei (gehienak senitartekoak dira) laguntzeko FBZPE prestazio ekonomikoaren zenbatekoa, bai eta LPPE Laguntza Pertsonalerako Prestazio Ekonomikoarena ere, hau da, laguntzaile pertsonalak kontratatu nahi dituzten eta mendekotasuna duten pertsonak jasotzen duten laguntza.

Gizarte Politiken Sailak proposatuta, Foru Gobernu Kontseiluak ontzat eman du FBZPEren gehieneko zenbatekoak % 7,5 igotzea. Horren helburua da laguntza emateko gizarte eta familia sareko pertsona batek emandako arretak eragindako gastuak estaltzen laguntzea, pertsona hori zaintzaile nagusi eta ohiko gisa aritzen baita. Gaur egun, Araban mendekotasuna duten 4.160 pertsonak jasotzen dute laguntza hori hileroko.

Era berean, ontzat eman du % 7,6 igotzea laguntzaile pertsonalak kontratatzen dituzten eta mendekotasuna duten pertsonak jasotzen duten laguntzaren gehieneko zenbatekoak. Era horretan, III. mailako mendekotasuna duten onuradunen LPPEaren hileko gehieneko zenbatekoa egungo lanbide arteko gutxieneko soldatarekin (LGS) parekatuko da. Gehikuntza hori I. eta II. mailakoei ere aplikatuko zaie, era proportzionalean. Guztira 520 pertsonak jasotzen dute prestazio ekonomiko hori hileroko lurraldean.

LPPEaren zenbateko berriek uztailaren 1ean izango dute eragina, eta FBZPEarenak, berriz, datorren irailean jarriko dira indarrean. Arabako Lurralde Historikoan hiru urtez jarraian erroldatuta egon direla egiaztatzen duten hartzaileei aplikatuko zaie zenbatekoen eguneratzea.

Bi prestazio horien aurrekontua 17 milioi eurotik gorakoa izan da 2025ean. EH Bildu, Alderdi Popularra eta Elkarrekin Araba-Podemos batzarkide taldeekin lortutako aurrekontu akordio ezberdinei esker izan dira igoerak.

Laguntza pertsonala kontratatzeko prestazioa

LPPEaren helburua da adinekoei laguntzea beren familia giroan eta ohiko ingurunean jarraitzen ahalik eta luzaroen, hala nahi baldin badute, bai eta zainketaren arloan lanpostuak sortzea ere. Gaur onetsi den igoerak aukera ematen du III. graduako gehieneko hileko zenbatekoa egungo lanbide arteko gutxieneko soldatarekin (LGS) parekatzeko. Igoera hori I. eta II. graduari ere aplikatzen zaie modu proportzionalean.

LPPEaren hileko gehieneko zenbatekoak, hauek izango dira, eurotan:

	LPPE-AREN EGUNGO GEHIENeko ZENBATEKOA	LPPE-AREN GEHIENeko ZENBATEKOA BERRIA 2026ko irailaren 1a
3. GRADUA	1.134,00	1.221,00
2. GRADUA	891,91	960,34
1. GRADUA	476,24	512,78

Familia giroan zaintzeko eta zaintzaile ez-profesionalentzako prestazioa

Hau da FBZPEa igotzen den hirugarren urtea jarraian. Haren zenbatekoek % 7,5eko igoera izango dute aurtan, baina 2024-2026 aldian % 27,5eko igoera metatu dute.

FGZPEaren hileko gehieneko zenbatekoak hauek izango dira, eurotan:

	FGZPE-AREN EGUNGO GEHIENeko ZENBATEKOA	FGZPE-AREN GEHIENeko ZENBATEKOA BERRIA 2026ko irailaren 1a
3. GRADUA	578,40	614,55
2. GRADUA	394,80	419,48
1. GRADUA	222,00	235,88

Foru Aldundiak 2,7 milioi euroan adjudikatu du bidezorua berritzeko kontratua

Foru Gobernu Kontseiluak Arabako zenbait errepidetan errodadura geruza birgaitu eta berritzeko kontratua Asfaltia SL enpresari adjudikatzea onetsi du gaur. Kontratua 2.668.850 eurokoa da, BEZa barne, eta bost hilabeteko gauzatze epea du.

2026ko Bidezoruen Planean jasotako jarduketak integratuko ditu Mugikortasun Jasangarriaren eta Bide Azpiegituren Sailak kontratu honen kargura, eta beste kontratu bat adjudikatuko du laster, bigarren mailako errepideen bidezorua konpontzeko eta urteko kontserbazio eta mantentze programetan planifikatutako hobekuntzarako esku hartzeak egiteko.

2026ko Bidezoruen Plana datozen asteetan aurkeztuko da eta denboraren poderioz eta neguko elurraren eta izotzaren eraginez kaltetutako errepide zatien bidezorua konpontzeko eta hobetzeko inbertsioak zehaztuko ditu. Helburua da errepideen foru sarea egoera onean egotea bermatzea eta errepideetako segurtasuna indartzea.

Foru Aldundiak, Eusko Jaurlaritzak eta Udalak jarraipena emango diote AMArri hitzarmen berri baten bidez

2026an etorkizuneko partzuergoaren oinarriak ezartzeko helburuarekin lan egiten ari dira

Foru Gobernu Kontseiluak Arabako Foru Aldundiaren, Eusko Jaurlaritzaren eta Vitoria-Gasteizko Udalaren arteko lankidetzaren hitzarmena berresteko foru arauaren proiektua onetsi du gaur, Arabako Mugikortasun Agintaritzari jarraipena emateko eta, horrela, lankidetzaren organo hori partzuergoan eratzeko lanean jarraitzeko.

Foru arau proiektua Arabako Batzar Nagusietan izapidetuko da orain, osoko bilkuran onetsi dezaten.

Arabako Foru Aldundiak, Eusko Jaurlaritzak eta Vitoria-Gasteizko Udalak 2018an sortu zuten AMA, erakundearen arteko koordinazio eta lankidetzaren organo gisa, Araban garraio publikoaren erabilera sustatzeko politika publiko eraginkor eta efizienteak elkarrekin definitzeko, tarifen integrazioan aurrera egiteko eta foro horri partzuergoaren formula juridikoa emateko.

Hitzarmenaren indarraldia aurtu amaituko da, eta beharrezkoa da beste hitzarmen bat sinatzea lan horiekin jarraitzeko. Organo horretan parte hartzen duten erakundearen helburua da etorkizuneko partzuergoaren oinarriak 2026an ezartzea.

Gobernu Kontseiluak Arabako kirol federazioentzako 2026rako dirulaguntzen deialdia onetsi du, eta aurreko ekitaldian baino 65.000 euro gehiago bideratu ditu

Gobernu Kontseiluak, Kultura eta Kirol Sailak proposatuta, Arabako kirol federazioentzako 2026rako dirulaguntzen deialdia onetsi du gaur, eta aurreko ekitaldian baino 65.000 euro gehiago bideratu ditu.

Deialdi honen xedea da Arabako Foru Aldundiaren eta kirol federazioen arteko lankidetzaren indartzea, eta, horretarako, federazioei baliabide ekonomikoak ematea, funtzio publikoak eta ohiko jardura gauzatzeko, bai eta profesionalizazioari, prestakuntzari eta euskararen sustapenari lotutako ildo estrategiko berriak bultzatzeko ere.

Dirulaguntzen xede zehatza da laguntza ematea administrazio arloko eginkizun publikoak betetzeko eta, oro har, Arabako Foru Aldundiaren agente laguntzaile gisa jarduteko, Euskal Autonomia Erkidegoko Jardura Fisikoa eta Kirola arautzen dituen martxoaren 30eko 2/2023 Legearen esparruan.

Horrez gain, deialdiak finantzaketa jasotzen du San Prudentzioko txapelketak antolatzeko, federazio egituretan euskararen erabilera sustatzeko, federazioen kudeaketa teknikoak hobetzeko eta teknikarientzako prestakuntza ekintzak antolatzeko, bat etorritik Euskal Autonomia Erkidegoan jardura fisikoaren eta kirolaren arloko lanbideetan sartzeari eta jarduteari buruzko ekainaren 30eko 8/2022 Legearekin.

Aurtengo berrikuntza nagusia da finantzaketa ildo berriak jaso direla, kirol federazioen kudeaketa teknikoak profesionalizatzeko eta teknikariek prestakuntza ikastaroak egin ditzaten, eta, hala, Arabako kirol sistemaren kalitatea, egitura eta jasangarritasuna indartzeko.

Ohiko funtzionamenduarekin lotutako gastu tradizionalen gain (langileak, hornidurak, mantentze lanak edo kirol jarduerak), deialdiaren irismena hedatu da inbertsio estrategikoak sartzeko, eta, hala, federazioek profesionalizazioan aurrera egitea, antolamendu egitura hobetzea eta arau eskakizun berrietara egokitzea ahalbidetuko da.

Dirulaguntza deialdiaren bidez, Arabako Foru Aldundiak berretsi egiten du federazio sarearekiko konpromisoa, funtsezko pieza baita lurraldean kirola garatzeko, eta kirol jardura egituratuagoa, inklusiboagoa eta kalitatezkoagoa sustatzeko.